



## UDALERRIKO HIRI TRAFIKOKO ORDENANTZA.

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2001/07/23an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2001/10/10ean

### **Aldaketak:**

#### **1. aldaketa:**

1. artikulua, 12. artikulua, 28. artikulua, 55. artikulua, 56. artikulua, 57. artikulua, 60. artikulua aldatu ziren eta 61 eta 62 artikulua sortu eta lehen 61 eta 62 zirenak eta 64 izatera pasa ziren, eta azkenik 64. artikulua testua aldatu zen.

Onartuta: Udalbatzak 2002/01/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2002/04/11n

#### **2. aldaketa:**

4. artikulua azken paragrafoa, 5. artikulua, 16. artikulua, 20. artikulua, 25. artikulua, 30. artikulua, 41. artikulua, 42. artikulua, 43. artikulua, 50. artikulua eta 64. artikulua .

Onartuta: Udalbatzak 2006/02/27an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006/06/02an.

#### **3. aldaketa:**

1. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2006/09/25an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2007/03/27an.

#### **4. aldaketa:**

1. artikulua, 40. artikulua, 50. artikulua, 55. artikulua, 56. artikulua, 64. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2010/04/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/08/02an.

#### **5. aldaketa:**

1. artikulua, 57. artikulua, 64. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2010/09/27an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010/11/25ean.

#### **6. aldaketa:**

32. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2011/03/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/07/04an.

## 7. aldaketa:

64. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2020/01/27an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020/06/18an.

## AURKIBIDEA:

I. Kapitulua.....	3
II. Kapitulua aparkatzea .....	3
III. Kapitulua.....	5
IV. Kapitulua .....	6
V. Kapitulua .....	7
VI. Kapitulua .....	8
VII. Kapitulua .....	8
VIII. Kapitulua .....	9
Azken xedapena .....	10

# UDALERRIKO HIRI TRAFIKOKO ORDENANTZA.

## I. KAPITULUA

### Orotarikoak

#### 1. artikulua.

Bergarako udalerriko hiri bideetan trafiko arloan egiten diren arau-haustek arautuko ditu udal ordenantza honek, baina betiere ondorengo araudi-xedapen hauek kaltetu gabe: uztailaren 25eko 18/1989 Oinarrien Legea (Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazio nahiz eta Bide Segurtasuneko Oinarriei buruzko Legea); martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea (Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazio nahiz Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu zuen Errege Dekretu Legegilea) azaroaren 23ko 18/2009 Legeak aldatua; azaroko 21eko 1428/2003 Errege Dekretua (Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazio nahiz Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatu eta garatzeko Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onartu zuen Errege Dekretua); eta aplikagarriak diren gainontzeko xedapenak.

## II. KAPITULUA

### Aparkatzea

#### 2. artikulua.

Ordenantza honen eraginetarako, geraldia edo geratzea ez dela ulertzen den ibilgailuaren ibilgetze guztia izango da aparkatzea.

Gelditzea, bidaiariak hartzeko edo uzteko edo gauzak zamatzeko edo hustutzeko ibilgailua bi minutu baino gutxiagoz ibilgetzea da.

Geratzea, estualdi arrazoiengatik, zirkulazioak behartuta edo erregelamenduzko aginduren bat betetzeko ibilgailua ibilgetzea da.

#### 3. artikulua.

Geratzea debekatuta dagoen lekuan aparkatuz gero arau-hauste arintzat joko da

#### 4. artikulua.

Debekatuta dago aparkatzea:

- a) Baimendutako ordutegiaren barruan zama-lanak egiteko guneeetan.
  - b) Elbarrien erabilera eskusiborako seinaleztatutako guneeetan.
  - c) Espalioen gainean, pasealekuetan eta oinezkoak pasatzeko gainerako guneeetan.
  - d) Behar bezala seinalizatutako pasabideetan.
  - e) Bigarren ilaran.
  - f) Z/B seinalizatutako guneeetan (Zaborra/Basura).
  - g) Behar bezala seinalizatuta eta mugatuta dauden garraio publikoaren geltokietan.
  - h) Larrialdi eta segurtasun zerbitzuentzat eta zerbitzu ofizialentzat berariaz erreserbatutako tokietan.
- Kapitulu honetan aipatutako atalei dagozkien arau-haustek larritzat hartuko dira, c) kasuan izan ezik, betiere oinezkoak pasatzeko leku nahikoa utziz gero.

#### 5. artikulua.

Udalerriko edozein kaletan zirkulazioa oztopatuz ibilgailua aparkatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

6. artikulua.

Denbora-mugaz araututako gunean edota dagokion Ordenantzaren bidez araututako gune urdinetan ezarritako edozein muga hautsiz aparkatzea arau-hauste arintzat hartuko da.

7. artikulua.

Ibilgailuak ahalik eta leku gutxien okupatuz edota horretarako mugatutako lekuetan aparkatu beharko dira beti. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

8. artikulua.

Bide-markaz edota seinaleztapen bertikalaz behar bezala seinaleztatutako leku debekatuan aparkatzea arau-hauste arintzat hartuko da.

9. artikulua.

Ibilgailuak galtzadan edo galtzada zati bat okupatuz aparkatzea arau-hauste arintzat hartuko da.

Ordenantza honen eraginetarako, ibilgailuak zirkulatzeko erabilitako bide zatia izango da galtzada, karril bakoitzak ibilgailu-lerro bat zirkulatzeko zabalera nahikoa izan beharko duelarik. Ibilgailuen artean, kamioak bezala ezagututakoak ere sartuko dira.

10. artikulua.

Debekatuta dago leku berean 30 egun naturalez jarraian ibilgailua aparkatzea. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

11. artikulua.

Debekatuta dago udalerriko edozein kaletan 3. kategoriko ibilgailuak, ibilgailu bereziak, nekazaritza-erabilerakoak edota obra publikoetakoak, karabanak eta erdiatoiak aparkatzea, horretarako baimendutako guneetan edota baimendutako ordutegiaren barruan zama-lanak egiteko izan ezik. Debeku hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

12. artikulua.

Zama-lanetarako ohizko ordutegia 8:00etatik 22:00etara izango da lanegunetan, larunbatetan, berriz, 8:00etatik 14:00etara. Ordutegi hau ez errespetatzea arau-hauste arintzat hartuko da. Zama-lanak horretarako egokitutako tokietan egingo dira orokorrean. Zama-lanak horretarako erreserbatutako tokietatik kanpo egiteko baimena izango da, baldin eta erreserbarik ez badago edo biltegirainoko distantzia neketsua edo arriskutsua baldin bada bakarrik. Salbuespenak izango dira etxeko zaborra jasotzeko zerbitzuaren lanak, papera, beira eta ontziak biltzeko kontenedoreak hustutzeko zerbitzuaren lanak, eta larunbat goizetan azokan eta merkatu txikian egiten diren zama-lanak.

13. artikulua.

Biztanledun eraikinaren oinezko sarbidea oztopatuz ibilgailuak aparkatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

14. artikulua.

Baimendutako bira ematea eragotzi edota bira hori egiteko besteei maniobrak egitera behartzen duen aparkamendua arau-hauste larritzat hartuko da.

15. artikulua.

Horretarako gune jakinak ez dituzten bide publikoetan, hiru metrotik gorako zabalera duten espaloi eta ibilbideetan aparkatu ahal izango dute motozikletek, beti ere espaloiarekin paraleloan eta zintarritik 50 zentimetrotara.

### III. KAPITULUA

#### Zirkulatzea

16. artikulua.

Ibilgailuak eta motozikletak ibiltoki, irlatxo, espaloi, eskailera, gune berde edota oinezko guneetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

Ekintza berbera arau-hauste arintzat hartuko dira bizikleten kasuan ere.

17. artikulua.

Udaltzainek egindako seinaleak edota emandako aginduak ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.

18. artikulua.

Semaforoko seinaleak ez errespetatzea arau-hauste larritzat hartuko da

19. artikulua.

Oinezkoren bat oinezkoendako pasabidean doanean, ibilgailua pasabide horretara sartzea arau-hauste larritzat hartuko da.

20. artikulua.

Ibilgailuak debekatutako norabidean zirkulatzea arau-hauste oso larritzat hartuko da.

21. artikulua.

Ibilgailuak debekatutako biraketa egitea arau-hauste larritzat hartuko da.

22. artikulua.

«Utzi pasatzen» seinalea ez errespetatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

23. artikulua.

Ibilgailu batek lehentasuna duen beste ibilgailu bati pasatzen ez lagatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

24. artikulua.

«STOP» seinalea ez errespetatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

25. artikulua.

Baimendutakoa baino abiada handiagoan zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da, eta arau-hauste horietarako muga gainditzen duen 10Km/h bakoitzerako ezarritako kantitateen arabera zigortuko da.

Baimendutako abiadura baino %50 handiagoa baldin bada eta era berean baimendutakoa baino 30 kilometro orduko baino handiagoa baldin bada arau-hauste oso larritzat hartuko da.

26. artikulua.

Ibilgailuak aurreratze debekatua egitea arau-hauste larritzat hartuko da. Harrapatzeko edota elkarjotzeko arriskua sortuz gero, arau-hauste oso larritzat hartuko da.

27. artikulua.

Ibilgailuentzat debekatutako zirkulazioa seinaleztatuta dagoen guneetatik zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

28. artikulua.

Udaltzainen ustez ibilgailuak ausarkeriaz gidatzea arau-hauste oso larritzat hartuko da.

Udaltzainen ustez ibilgailuak zabarkeriaz gidatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

29. artikulua.

3. \$\$kategoria edota neurri berezietako ibilgailu batek udalerriko kaleetatik zehar zirkulatu behar duenean behar den aurrerapenarekin abisatu beharko zaio Udaltzaingoiari, eta itxaron egin beharko du honek bere ibilbidean lagun diezaion. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

30. artikulua.

Ziklomotore eta motozikleten gidariek eta hauen lagunek dagokien babes-kaskoa eraman beharko dute behar bezala jantzita. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.

31. artikulua.

Monopatinak, patinak edo antzeko aparailuak erabiltzen dituztenek ezin izango dute galtzadatik zirkulatu, horretarako espreski ezarritako gune, bide edota hauen zatiak ez badira behintzat. Espaloi edo oinezko guneetan oinezkoen abiaduran soilik zirkulatu ahal izango dute, baina inoiz ere ez beste ibilgailuren batek erremolkatuta.

Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

32. artikulua.

12 urtez azpiko umeek espaloi, anden eta pasealekueetatik zirkulatu ahal izango dute patin, monopatin, patinetearekin, bizikleta, triziklo eta antzekoekin, beti ere oinezkoen abiadurara egokituta.

Bizikletek atoi bat edo erdi-atoi bat eraman ahal izango dute, 1428/2003 Errege Dekretuaren 12. artikuluko 4, 4.1 eta 4.2 idazatietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (zirkulazio-araudi orokorra) eta atoian pertsonak eraman ahal izango dira. Gauza bera aplikatuko da hiriko bideetan zirkulatzen duten motor-bizikleta, hiru gurpildun ibilgailu, ziklomotore eta zikloendako ere.

33. artikulua.

Arau-hauste oso larritzat hartuko dira:

- Edari alkoholdun edo substantzia aluzinagarrien eraginpean gidatzea,
- Erregelamenduak une eta egoera bakoitzerako onartzen duen airean botatako alkohol-tasa baino handiagoz gidatzea edota
- Erregelamenduz onartutako frogak egiteari uko egitea.

## **IV. KAPITULUA**

### **Oinezkoak**

34. artikulua.

Oinezkoek ezingo dute zirkulazioa oztopatzen duten taldeak osatu. Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

35. artikulua.

Oinezkoek ezingo dute gainontzeko oinezkoak gogai ditzaketen lasterketa edota jokoak egin. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

36. artikulua.

Fardelak, otarrak eta bestelako edozein gauza garraiatzen dituzten oinezkoak espaloitik gertuen dagoen gunetik joango dira, eta gainontzeko oinezkoek zauriak, kolpeak edo eragozpenak ez eragiteko behar diren neurri guztiak hartuko dituzte. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.

37. artikulua.

Galtzada gurutzatu behar duen oinezkoak horretarako markatutako oinezkoen pasagunetik pasatuko dira, semaforoen seinaleak edota, hala balegokio, udaltzainak emandako aginduak errespetatuz. Seinaleztatutako pasagunerik egongo ez balitz, ibilbide motzenetik pasatuko dira eta galtzadan ahalik eta denbora gutxien egonez. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

## **V. KAPITULUA**

### **Teknika administratiboak eta ingurugiroa**

38. artikulua.

Behar den argirik gabe zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da.

39. artikulua.

Gidatzeko baimen, derrigorrezko aseguru edota zirkulazio-baimenik gabe zirkulatzea arau-hauste larritzat hartuko da. Gidariak ondorengo 24 orduetan agiri horiek badituela egiaztatzen badu, arau-haustea bertan behera geratuko da.

40. artikulua.

Baimendutako baino bidaiari gehiagorekin zirkulatzea arau-hauste arintzat hartuko da; baina bidaiari kopurua %50ean gainditzen bada arau-hauste larria izango da.

41. artikulua.

Soinu-seinaleen bidegabeko erabilera arau-hauste larritzat hartuko da.

42. artikulua.

Ke edo zarata gehiegi ateratzea arau-hauste larritzat hartuko da.

43. artikulua.

Motozikletek eta ziklomotoreek ezin izango dute ibilgailutik gertuen dagoen azaleratik 7,5 m.ra azelerazioan neurtuta 76 db. baino gehiagoko zarata atera kanporantz. Neurri hori gaindituz gero ibilgailua ibilgetuko da.

44. artikulua.

Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailuak garbitzea, koipeztatzea edo konpontzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da.

45. artikulua.

Espaloi edo galtzada ganean zamak edota merkatalgaiak uztea edo lekualdatzea, edo arrastaka eramatea arau-hauste arintzat hartuko da.

46. artikulua.

Trafiko-seinaleak kaltetzea arau-hauste larritzat hartuko da. Isunaz gain, eragindako kalteen konponketa ere ordaindu beharko da.

47. artikulua.

Debekatuta dago semaforo eta seinaleen ikuspen normala itsutu, eragotzi edo mugatzen duten toldo, kartel, iragarki edo bestelako instalaziorik jartzea. Artikulu hau ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da

## **VI. KAPITULUA**

### **Prozedurako beste arauak**

48. artikulua.

Agintaritzaren Agenteei desmen egitea edo errespetu falta agertzea arau-hauste larritzat hartuko da eta arau-hauste oso larritzat hartuko da desmen egiten jarraitzen bada.

49. artikulua.

Zirkulazio Kodean edo Trafiko, Ibilgailu Motoredunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Errege Lege Dekretuan jasotako beste edozein aginduren arau-haustea aipatutako xedapenetan emandako sailkapenaren arabera zigortuko da, Ordenantza honetan onartutako kantitateak aplikatuz.

50. artikulua.

Etxean lehen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epearen barruan isuna ordaintzeak %50eko beherapena ekarriko du.

51. artikulua.

Ondoren aipatutako eragozpenen bat eragiten duten ibilgailuak gruzak kendu ahal izango dira udal-biltegira: Udalerriko kale batetik ibilgailuen zirkulazioa eragozten bada; espaloi edo zebra-markak dituen pasagune batetik oinezkoen pasoa eragozten bada; behar bezala seinaleztatuta dagoen baimendutako ibia duten garajeetako ibilgailuen sarrera edo irteera oztopatzen bada; eta elbarrientzako, garraio publikoa gelditzeko, zama-lanak egiteko edo zaborra biltzeko erreserbatutako guneak okupatzen badira.

Bide publikotik erretiratu eta udal-biltegian utzitako ibilgailuen jabeek, horiek erretiratzeak sortutako gastu guztiak ordaindu beharko dituzte eraman ahal izateko.

52. artikulua.

Bide publikoan ibilgailuen edota oinezkoen zirkulazio normala eragozten duten oztopoak jartzeak aurretiko udal baimena izan beharko du, eta gauez behar bezala seinaleztatuta eta argiztatuta geratu beharko dira. Artikulu honetan ezarritakoa ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da.

53. artikulua.

Udaltzaingoak, segurtasun edo ordena publikoaren arrazoiengatik edota zirkulazioaren zalutasuna bermatzeko, eragin horretarako behar diren guneetan trafikoaren antolamendua alda dezake aldi baterako, beharrezkoak diren seinaleak jarri edo erretiratu.

54. artikulua.

Udalak, aparkaldi mugatuaren guneak arau ditzake seinaleztapen egokia erabiliz eta gune bakoitzaren premia berezietara egokituz.

## **VII. KAPITULUA**

### **Ibilgailu abandonatuak**

55. artikulua.

1. Udalak agindua eman ahal izango du Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentrora ibilgailua eraman eta ondorioz desegin eta deskontaminatzeko:

a) ibilgailuak bi hilabete baino gehiago daramatzanean ibilgetuta edota bide publikotik erretiratuta eta udalak gordeta, baldin eta jabeak alegaziorik egin ez badu.



b) ibilgailua leku berean hilabete bat baino gehiago aparkatuta egon eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten hondamenak dituenen edo matrikula-plakak ez dituenen.

2. Komenigarria ikusten den kasuetan, Alkateak edo ordezeko agintariak, ibilgailua desegin ordezkari, trafiko-zaintza eta -kontrola egiten duten udal zerbitzuei adjudikatu ahal izango die.

56. artikulua.  
Edukirik gabe.

57. artikulua.  
Jakinarazpenak Ibilgailuen Erregistroan titular gisa agertzen denari egingo zaizkio, Udalak jabea Erregistroan agertzen ez den beste bat dela pentsaraz dezaketenean beste datu batzuk dituenen izan ezik. Azken kasu honetan, jakinarazpena biei egingo zaie eta erretiratzeko hilabeteko epea emango zaie.

58. artikulua.  
Gordetako ibilgailuen titularrak ezezagunak badira edo leku ezezagunean badaude eta horiek bilatzeko gestioek emaitzarik ematen ez dutenean, aurreko artikuluan aipatzen den jakinarazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez egingo da eta bere kostua titularraren gain joango da, agertzen badira.

59. artikulua.  
Ibilgailuaren titularrak ibilgailua abandonatzeko borondatea espreski adierazi badu, Udalak egoki ikusten duen moduan jokatuko du.

60. artikulua.  
Titularrek ordainduko dituzte abandonatutako ibilgailuak jaso eta gordetzeak eragindako gastuak.

61. artikulua.  
Ibilgailu bat abandonatutzat hartzeak, titularrak hori abandonatzeagatik edo titulartasun horrek ekarritako aurreko betebeharrengatik duen erantzukizuna ez du aldatuko.

62. artikulua.  
Trafikoko Probintziako Buruzagitzari jakinaraziko zaio ibilgailu bat abandonatutzat hartzen denean eta ondoren hiri hondakin solidoaren tratamendua ematen zaionean, bere jakinerako eta dagozkion eraginetarako.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Zigortze-jardunbidea**

63. artikulua.  
Trafiko eta ibilgailuen zirkulazio gaietan zigorrak jartzeko prozedura administratiboa indarrean dagoen legediak ezarritakoa izango da.  
Gidatzeko baimen eta lizentziei, ibilgailuen azterketa teknikoari, zirkulazio-baimenari eta derrigorrezko aseguruaren polizari dagozkien arau-hausteak Gipuzkoako Trafikoko Probintziako Buruzagitzara bidaliko dira, arau-hauste horiek zigortzeko organo eskuduna delako.

64. artikulua.  
Arau-hauste arinak 50 euroko isunarekin zigortuko dira, arau-hauste larriak 200 euroko isunarekin eta arau-hauste oso larriak 500 euroko isunarekin. Arau-hauste oso larriak Trafikoko Probintziako Buruzagitzari jakinaraziko zaizkio.

Abiadura gaitzeagatik isunak jartzerakoan, azaroaren 23ko 18/2009 Legeko IV. eranskinean ezarritakoa aplikatuko da.

Halere, Araututako Aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantzak 11. artikuluan arau-haustetzat jasotako hauek arau-hauste arinak izanda ere, 20 euroko isunarekin zigortuko dira: a), b), c) eta d) letretan jasotakoak.

Aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantzak 11.e) artikuluan arau-haustetzat jasotako arau-hauste arinak 100 euroko isunarekin zigortuko dira

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 15 lanegun igarota sartuko da indarrean.